

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### HIRIGINTZA

#### Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

**Behin betiko onespena ematea Gasteizko udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren xedapen aldaketa xehatuari, Legardako Kontzejuan erabilera publikoko espazio libreko lursail baten zati bati kalifikazio xehatua aldatu eta oinarrizko azpiegiturakoa izatera pasatzeko**

Hauxe erabaki zuen udalbatzak 2015eko azaroaren 6an egindako ohiko bilkuran:

Gaia: Behin betiko onespena ematea Gasteizko udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren xedapen aldaketa xehatuari, Legardako Kontzejuan erabilera publikoko espazio libreko lursail baten zati bati kalifikazio xehatua aldatu eta oinarrizko azpiegiturakoa izatera pasatzeko.

#### ERABAKI-PROPOSAMENA

Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra aldatzeko proiektua ikusi da, zein Legardako Kontzejuko erabilera publikoko espazio libreko lursail baten zati bati kalifikazio xehatua aldatu eta oinarrizko azpiegiturakoa izatera pasatzeko baita. Proiektua lehendakariak, I. D. de M. M. jaunak, aurkeztu zuen 2015eko maiatzaren 20an, Legardako administrazio batzarraren izenean.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2015eko uztailaren 24an egindako bilkuran onetsi egin zuen proiektua eta hasierako onespena eman zion Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldakuntza horri, zein Legardako Kontzejuko erabilera publikoko espazio libreko lursail baten zati bat kalifikazioa xehatua aldatu eta azpiegiturakoa izatera pasatzeko baita, guztia dossierrean jasotako proiektuarekin bat.

Erabaki hori 2015eko abuztuaren 10eko ALHAOn argitaratu zen (93 zk.) eta Diario de Noticias de Alava egunkarian, 2015eko abuztuaren 3an, aldakuntzari buruzko dokumentazioa hilaibetez jendaurrean jarri zelarik, eta epe horretan ez zen hasierako onespeneren erabakiaren kontrako alegaziorik aurkeztu.

Indarrean dagoen Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren testu bategina Arabako Foru Al-dundiaren Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 25eko 143/2003 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen behin betiko, eta 2003ko martxoaren 31ko ALHAOn argitaratu.

L. R. P. arkitektoak Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra aldatzeko idatzitako proiektuaren xedea da Legardako administrazio batzarraren 20130-1140-0021 katastro erreferentziako lursailaren zati bati sailkapen xehatua aldatzea (erabilera publikoko espazio libre sailkapena du), eta oinarrizko azpiegiturarako izatera pasatzea, hori guztia egun airetik dauden kable elektrikoak duela urte batzuk egin ziren lurpeko kanalizazioetatik sartzea ahalbidetuko duen eraldaketa zentro bat jartzeko .

Beraz, aldakuntza proiektu honek ez du Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko egiturazko antolakuntza zehaztapenik aldatzen, bertako antolamendu xehatuko zehaztapenen bat bakarrik aldatzen du.

Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren xedapen-aldaketa horri dagokion proiektuan jasota dago oroitidazkia, non honako hauek aipatzen baitira: haren xedea, aurrekariak,

ekimena, haren egokiera eta beharraren justifikazioa, proposamenaren deskribapena eta indarrean dagoen plangintza eta proposatutakoa, baita planoak eta dagokion dokumentazio grafikoa ere.

Udaleko Hirigintza Saileko Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzuak txosten juridikoa eman zuen 2015eko irailaren 24an, eta bertan plan orokorrean aipatu den aldakuntza egiteari behin betiko onespena ematea proposatu zuen.

2/2006 Legea garatzeko premiazko neurrietarako ekainaren 20ko 105/2008 Dekretuaren 30. artikuluan xedatuta dago plangintza orokorrean integraturiko antolakuntza xehatua aldatu egin ahalko dela plangintza orokorraren aldakuntzaren figura baliatuz, besteak beste, eta horretarako 2/2006 Legearen 95., 96. eta 97. artikuluetan araututako prozedura ezartzen du.

Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldakuntzari behin betiko onespena emateko organo eskuduna udalbatza da, eta berari dagokio hirigintzako legediak aurreikusitako planen zein bestelako tresnen udal izapideei amaiera emateko onespena, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 123.1.i artikulua (Tokiko Gobernu berritzeko neurriei buruzko 57/2003 Legeak osatua) dioenaren arabera.

Proposatzen den antolamendu aldaketaren ildotik —dosierren parte diren hirigintza-agerietan justifikatzen da horren beharra eta egokiera—, aipatutako arauak aintzat harturik eta Toki Jaurbidearen Oinarri buruzko 7/1985 Legeak —abenduaren 16ko Tokiko Gobernu Eraberritzeko Neurriei buruzko 57/2003 Legeak osatua— 122.4 a) artikuluan aitortzen dion aginpidea baliaturik, hauxe proposatzen dio Hirigintza eta Espazio Publikoaren Batzordeak udalbatzari:

#### ERABAKIA

1. Behin betiko onespena ematea Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren xedapen-aldaketari, zeina Legardako Kontzejuko erabilera publikoko espazio libreko lursail baten zati bati kalifikazio xehatua aldatu eta oinarriko azpiegiturakoa izatera pasatzeko baita, dossierrean jasota dagoen proiektuarekin bat etorritz.

2. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 89.5. artikulua xedatutakoaren ildotik.

3. Erabaki honen kontra, amaiera ematen baitio administrazio-bideari, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, jakinarazten edo argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 46.1 artikuluaekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteizen, 2015eko azaroaren 12an

*Alkate lehendakari*  
**GORKA URTARAN AGIRRE**